



2012KO AZAROAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko azaroaren hamaseian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko urriaren 12an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 63 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMABI MILA ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HOGEITA LAU ZENTIMO (52.084,24 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 12-11-02 zbk.dun esped.: bere osasun egoeraren hobekuntzagaitik 2012ko urriaren 31n zerbitzuan baja ematea.
- 09-11-003 zbk.dun esped.: asteen 7,5 ordutik 9 ordura zerbitzua handitzea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 12-01-007 zbk.dun esped.: elkarbizitza unitatean aldaketak egon direla eta, etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean jasotzen duen kopurua 62,5 €tik 250 €tara aldatzea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-008 zbk.dun esped.: azaroan, bizileku aldaketa dela eta, etxebizitzaren alokairu gastuetarako diru laguntzatik baja ematea.

Presoen familientzat garraio laguntza.-

- 12-13-03 zbk.dun esped.: preso dagoen bere senitartekoa ikustera joateko bidaietarako hilean 135,34€ ematea, urtarriletik abendura.

Ezinduentzako aparkatzeko txartela.-

- 106 zbk.dun esped.: txartela hiru hilabetez kentzea, txartelaren erabilera okerra egiteagatik.

- 598 zbk.dun esped.: txartela hiru hilabetez kentzea, txartelaren erabilera okerra egiteagatik.

- 79 zbk.dun esped.: txartela hiru hilabetez kentzea, txartelaren erabilera okerra egiteagatik.

IV.- UDAL JABETZAKO LOKALA BESTERENTZEKO LEHIAKETAREN ESLEIPENA.-

Lazkaoko Udalaren jabetzakoa den eta Lazkaon Mikelar 6 - behea eskubian kokatutako merkataritza lokala, eraikitako 15,47 m² eta erabilgarriak diren 15,04 m²ko azalera dituen, lehiaketa bidez besterentzeko lizitazio espedientea ikusi ondoren.

Lehiaketara lizitatzailerik bakarrik aurkeztu da eta kontratazio mahaiak lizitatzailerik horren aldeko esleipen proposamena luzatu duela kontutan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrek, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- 1.- Lazkaoko Mikelar 6 behea eskubian kokatzen den udal jabetzako merkataritza lokalaren besterentzea Euskaltel, S.A.ri esleitzea, HOGEITA BI MILA EHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMALAU ZENTIMOTAKO (22.128,34 €) prezioan.
- 2.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

2012ko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrek, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>KIROL TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Futbol taldea	7.114,00 €
Pelota taldea	1.580,00 €
Igeriketa taldea	500,00 €
Atletismo taldea	522,00 €
Mendi taldea	643,00 €
Txirrindulari elkarteak	651,00 €
GUZTIRA	11.010,00 €



- Jose Bolinagak, Txindoki Atletismo taldearen izenean "Josetxo Imazen oroimenezko XII. Lasterketa"ren antolaketan izandako gastuei aurre egiteko egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirola eta Gazteria Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zazpiehun (700 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Oin Arin dantza taldeari.-

Sanmiel jaietan Dantzari Txiki Eguna antolatzeagatik MILA ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO (1.096,25 €) ematea.

Herrira taldeari.-

2012ko urriaren 26, 27 eta 28ko asteburuan "aurrera goaz" lelopean antolatutako jarduerarengatik BI MILA ETA BOSTEHUN EURO (2.500 €) ematea.

VII.- 1 H.J.A.KO "CAF" 1.1 E.U.REN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN HASIERAKO ONARPENA.-

C.A.F., S.A. enpresak Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A.ko "CAF" 1.1 Egikaritze Unitatearen birpartzelazio Proiektua aurkeztu du.

Birpartzelazio proiektu hau udal teknikariek informatua izan da eta txostena aldekoa izan bada ere, behin-betiko onarpenaren aurretik garrantzi gutxiko zehaztapen batzuk jaso eta bategingo dituen dokumentua aurkeztu beharko dela adierazten da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

1. C.A.F., S.A. k aurkeztutako 1 H.J.A.ko "CAF" 1.1 Egikaritze Unitatearen birpartzelazio Proiektuari hasierako onarpema ematea. Behin-betiko onarpenaren aurretik, bere inguruko txosten teknikoan jasotako zehaztapenak barneratu eta bategingo dituen dokumentua aurkeztu beharko da, hala nola, jendaurreko erakustaldian aurkeztu daitezkeen alegazioen onarpenetik ondorioztatutako aldaketak.
2. Birpartzelazio proiektu hau jendaurreko erakustaldian jartzea, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria eta Gara egunkarietan argitaratuz, eta interesatuei denboraldi bererako entzunaldia ematea banakako jakinarazpenen bidez.

VIII.- HERRI ENPLEGUAREN ESKEINTZA.-

Lazkaoko Udalak, 2008ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran, administrari plaza bat sortzea eta administrari laguntzaile plaza bat iraungitzekoa bezala aitortzea erabaki zuen. Orain, administrari laguntzaile plazak betetzen zuen lanpostuaren pertsona jubilatu denean plaza hori amortizatuta gelditu da.



Honen aurrean, udal honek bere eginkizunak betetzeko daukan pertsonala juistu juistukoa dela eta, behar beharrezkoa jotzen da administrari plaza hori betetzea eta hori horrela plaza hori barneratzen duen 2012ko herri enpleguaren eskeintza onartzea proposatzen da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) aurtengo egoera kontutan izanda eta lege aldetik egon daitezkeen eragozpenak direla eta, abstenitu egingo dela esaten du.

Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (EAJ), 2012ko herri enpleguaren eskeintza onartu egiten du.

IX.- ADMINISTRARI PLAZA BAT BETETZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA.-

Jarraian 2012ko herri enpleguaren eskeintzan barneratutako administrari plaza lehiaketa-oposaketa aske bidez betetzeko oinarriak, bere espedientean daudenak, eta deialdia egitea onartzea proposatzen da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) aurtengo egoera kontutan izanda eta lege aldetik egon daitezkeen eragozpenak direla eta, abstenitu egingo dela esaten du.

Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (EAJ), Lazkaoko Udalaren plantilan barneratutako administrari plaza bat lehiaketa-oposaketa aske bidez jabetzan betetzeko oinarriak eta deialdia egitea onartu egiten du.

X.- LAZKAOKO UDALAREN LANGILEEI PRODUKTIBITATE GEHIGARRIA.-

Lazkaoko Udalaren langileek denboraldi honetan udal kudeaketan garatutako helburuak lortzeko egin duten lana kontutan izanda, langileek erakutsitako interesa, helburu horiek udal langileen inizatiba eta errendimentuak lagunduta lortu direnez eta Lazkaoko Udalak diseinatutako kudeaketa efikaz eta transparentean udal langileek aurrerapausu garrantzitsuak ematen lagundu dutela kontutan izanda baita ere, izaera singular eta ez-ohiko eta 2012 urteari bakarrik eraginez, Lazkaoko Udalaren langileei produktibitate gehigarria esleitzea proposatzen da. Gehigarri hau langile bakoitzarentzako BEDERATZIEHUN ETA BEDERATZI EURO (909 €) izango da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) aurtengo egoera kontutan izanda eta lege aldetik egon daitezkeen eragozpenak direla eta, abstenitu egingo dela esaten du.

Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (EAJ), 2012urtean Lazkaoko Udalaren langileei proposatutako produktibitate gehigarria ordaintzea onartu egiten du.

XI.- BILERAREN AMAIERA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogeita bi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

